

BERRIGARA

88. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1.992, abenduak 11

**KULTUR
ZERBITZUAK
GABONETAN
IZANGO
DITUGUN
EKITALDIAK
ZEHAZTU DITU**

TABERNAK:
ZARATA ETA
LEGEAREN
ARTEKO
BORROKA

KIROLAK

UDAL KIROL
ZERBITZUAK
BOLEIBOL
TXAPELKETA
ANTOLATU DU
14 URTETIK
GORAKOENTZAT




ETXEBIZITZA SOZIALEN ZAI

Guipuzcoanon euskara aurretik

BANCO

e Guipuzcoano

BADATOZTELA!!



BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala

Laguntzailea:

Eusko Jaurlaritza

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereizbar

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua: Inaki

Eraña, Gorka Elorza eta Alex
Labaion

Kolaboratzaileak: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereizbar, J. M.
Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai,
Maripi Laskurain, N. Alzelai,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi, M.
Elkorobereizbar, Aitziber
Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.
Sorondo.

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.
Garzia, D. Santos, P. Retolaza,
Kihu eta Pol-Pol Mendizale
Taldea.

Komikia eta marrazkiak: Josu

Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea

Copyright:


BERRIGARA

Tirada: 3.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
nen eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek


Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

JULIAN BELOKI

Julian Beloki napar pelotaria izango da gaur ostirala, gaueko 10.45etan, Bergarako Frontoian jokatuiko diren partiduetako izar nagusia. Naparrak Er-rastiri egin beharko dio aurre 4 terdiko Txapelketaren barne eta 12 tantu egitea nahikoa izango du finalean Eugiren kontra jokatzeko.

Gaur beraz partidu interesgarria Udal Pelotalekuan jokatuiko dena eta ETBko kamarak horren lekuko izango dira. Gaueko programazioan ETB Kantxa saioak zuzenean eskeiniko du



partidua. Ondoren jokatuiko den binakako partiduak ere ikumin haundia sor dezake bergarar zalegoaren artean; Capellan eta Zezeagak Urionaguena eta Martirikorenaren aurka neurtuko dituzte indarrak.

Ostiralean Udal Pelotalekuan jokatuiko du Errastiren aurka

ITURRI ONETIK

Bergaratik Monacora

Prensa larroseko albiste bat dakarzkizuegu oraingoan. Juan Antonio Unzueta San Juango garraiolaria Monacon izan da, Estefania printzesak eta Daniel Ducruet bere lagunak Zumaiako altzari enpresa bati erositako sukaldea eramateko. Erosi berri duten pisua dekoratzen ari dira eta, zihurrenik, laister aldizkari espezializatueta erakutsiko dute pisua, tartean Juan Antoniok eraman zien sukaldea. Ea papillak ondo gertatzen dituzten.

ESAN DUTE

"Gaur gun, Taun-Taun Txotxongilo Taldeak goi mailako ikuskizunak eskeintzen ditu eta Estatu mailan ere talde onenen artean dago. Benetan zorionak eman nahi dizkiet beren emankizuna [Tolosako Txotxongilo Jaialdian] oso ikusgarria izan zelako. Jendea oso pozik geratu zen".

ENKARNI GENUA "Txotxongilo" taldea EUSKADI RRATIA

"Gaztelu haundiaren seme den Aranzabalen izena asko entzuten hasi da titular posible bezala. Ez litzateke harriztekoa izango Toshackek gazteengana jotzea, Agustin Aranzabalek entrenamenduetan eta filialarekin jokatuiko partiduetan azaldu duen kalitatea kontutan izanik".

MIKEL ORMAZABAL Kazetaria DEIA

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIAURRE
AROSZTEGIA
• Sarrerako eta barruko atekak •
• Horma armairuak • Tarimak •
• Egurrezko eta PVCzko leihoak •
• Era guztietako arotz lanak •
Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

ELEKTRO
ARENAZA C.B.
Montaje elektrikoak,
automatismoak, e.a.
San Lorentzo 19,
Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43



EL CORTADOR DE CESPED

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



LA MAÑO QUE MECE LA CUNA

Larunbata: 17.00, 19.30 eta 22.30.



CUERPOS ARDIENTES

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Stephen King

idazlearen istorio gehienak zinea heltzen dira. Eta arrakasta lortu ere bai kasu askotan.

Honako honetan, **Pierce Brosnan** (*Remington Steele*) eta **Jeff Fahey** protagonizatuta, zientziak sortu duen supergizon batek marjinatu duen gizartearekin hartu nahi duen mendekua kontatzen zaigu.

▼▼ Rebecca de

Mornay haur zaindari hasiko da lanean baina gauzak ondo hasten badira ere kontratatu duen familia laister damutuko da. Ama ordezkatu nahi izango du eta ez du inola ere atzera egingo. Urduri jartzen zaituen horietakoa.

▼▼ Joan den urtean Donostiako Zine Jaialdian aurkeztu zen filme honek, nahiz eta **Faye Dunaway**ren *gantxoa* izan, ez du arrakasta haundirik izan. Louisianako hegoaldean eguzkia izkututzen denean temperaturak gora egiten duela dio publizitateak...

Erakusketak

▼ **Manu Muniategiren** margo erakusketa igandera arte, abenduak 13. Kultur Etxean.

▼ **Kirol Argazkien Lehiaketako** erakusketa ere igandean amaituko da. Bertan, Udal Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki taldeak antolatutako II. Kirol Argazki Lehiaketan parte hartu duten lan onenak ikus daitezke. Kultur Etxeko 3. erakusgelan.

Farmaziak

▼ Larunbata 12:

Mozos.

▼ Igandea 13:

Mozos.

▼ Astelehena 14:

Camacho.

▼ Asteartea 15:

Puy.

▼ Asteazkena 16:

Guallar/Amezua (Arrasaten gaez).

▼ Osteguna 17:

Estella/Ruiz.

▼ Ostirala 19:

Mozos/Azkoaga.

Ogia

▼ Igandea 13: Mizpildi.

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
- ✓ Era guztielako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

Ikuskizunak


▼ **Banpiro ehiztariak** hau-
rrentzako bideoa larunbatean, hi-
lak 12, goizeko 11etan Kultur
Etxean.



Banpiro ehiztariak.

Aukeran

▼▼ **Bergara K.E.ko futbol talde nagusiak**
Danak taldearen bisita izango du igandean, arratsaldeko 3 t'erdietan Agorrosinen. Beitiaren mutilek galdu egin zuten joan den astean Pasaian eta ezin dezakete puntu gehiagorik galdu etxean. Momentuan sailkapenaren erdialdean dira 10 puntu eta 2 negatiborekin.



Kirolak

▼ Futbola:

- **Bergara-Antiguoko** (lehen mailako jubenilak). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.
- **Bergara-Soraluze** (infantil txiki). **Igandean** 9etan.
- **Bergara-Soraluze** (2. mailako kadeteak). **Igandean** 10.30etan.
- **Bergara-Soraluze** (2. mailako jubenilak). **Igandean** 12.15etan.
- **Bergara-Danak** (preferente maila). **Igandean** 15.30etan Agorrosinen.

- **Bergara-CAF Beasain** (senior gizonak), larunbatean 17.15etan.
- **Bergara-Aloña Mendi** (jubenil neskak), larunbatean 18.45etan.

▼ Saskibaloia:

- Gazte mailako mutilak eta kadete mailako neskek igandean jokatuko dituzte beren partiduak: 10.30etan neskek eta 12.15etan mutilek. Kiroldegian.


▼ Eskubaloia:

- **Bergara-Arrasate** (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan Kiroldegian.

▼ Futbitoa:

- **Futbito Txapelketa astebukaeran** Kiroldegian.

5



PROFESIONALAK

• Errasti Belokiren aurka (4 t'erdiko Txapelketa-ren barne).

• Capellan eta Zezeaga/Urionaguena eta Martirikorenaren aurka.

ETBk lehen partidua zuzenenan eskeiniko du **ETB Kantxa** saioan.

Ostiralean, 22.45etan Udal Pilotalekuan.

LONBIDE

OINETAKOAK



EZPELETA
etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 **BERGARA**

BIDEKURUTZETA 5

☎ 76 10 57

BERGARA

Gora herria!

Bergatarrok:

Abenduaren 12a beti izan da antzuolarrontzat egun gogoangarria, egun handi bat eta beti gaur arte bezala ospatuko dugu, herriek ez bait dute euren askatasuna lortu zeneko eguna inoiz ahazten.

Antzuola Bergaragandik aldendu zela ospatzen dugun 363. urteurren honetan, ezin dugu oraindik ahaztu gure aurrekoek pasatu behar izan zituztenak bergatarren menpe, baina beraien determinazio eta borroka justuari esker betirako Bergararen inperialismo eta haunditasunarekin amaitzea lortu zuten. Historiak arrazoia ematen digu, idealek eta asmo justuek, hau da, justiziak garaipena lortu zuelako.

Urte asko pasa diren arren bergatarroi oraindik nabaritzen zaizue handitasun eta harrotasun kutsua, horregatik badakigu erne eta argi jarraitu behar dugula lortutako askatasun maila mantentzeko, etsaia hor daukagulako zelatan.

Guk lortu genuenarekin ez gaude lasai, antzuolarrak ezagutzen bait dugu solidaritza eta elkartasuna hitzen esanahi sakona, horregatik ikusten ditugu beste herri batzuk egoera larrian mokoloen (edo sagar-erreen) menpe,

subiranotasunik gabe. Gure eskua eta laguntza luzatu nahi diegu Elusu, Osintxu eta Angiozar bezalako herri jator eta lagunei.

Lerro hauen bitartez bidaltzen diegu animoa euren askatasun prozesuan aurrera jarraitzeko etsi gabe. Jakin ezazue beti izango garela zuen ondoan mokoloen inperialismoaren aurkako borrokan.

Hortaz, A.E.B.T. gertu agertzen da Antzuolak lortutako askatasun maila mantendu, bergatarren erasoai aurre egin eta beste herrien askatasun prozesua defenditzeko.

Amaitzeko, zuen herriak eman duen seme jator bakarrenetako batek zioen hitzak gogoratu nahi ditugu: "Askatasuna ez da diruz erosten, borrokatuaz irabazten da".

Gora munduko herri libreak!

A.E.B.T. (Antzuolako Ekintza Bereziatarako Taldea)

Tiira ba!



Josu Okina

□ Martxa

Donostiako Gotzaitegiak dei egiten du datorren larunbatean, hilak 19, Arantzazuko Santutegira egingo den pakearen aldeko martxan parte hartzeko. Martxa eguerdiko 12etan egingo den mezarekin burutuko da. Bergarako irteera goizeko 8,40etan izango da Frontoitik. Txartelak 850 pta. tan salgai egongo dira Agirrebeña, Zatoia edota Aranzabal komertzioetan.

□ Omenaldia

Bergarako moto eta kotxe gidariak omenduko dituzte Udalak eta *Scratch* taldeak igandean, hilak 12, Txuringo Jatetxean egingo den bazkariarekin. Txartelak Avenida tabernan eros daitezke.

250 eskakizun inguru Toki-Ederreko etxebizitza sozialetarako

Toki-Ederren egin beharreko 68 etxebizitza sozialak eskuratzeko 250 eskakizun jaso dira Udaleko Hirigintza Batzordean, izena emateko epea ostegunean itxi ondoren.

68 etxebizitza horietatik 63 adjudikatuko dira eta gainontzeko 5ak Udalaren esku geratuko dira. Adjudikatuko diren etxebizitzetatik, berriz, 28 1.1 modulukoak dira (zerbait merkeagoak) eta 40 1.2 modulukoak. Xabier Gallastegi, Hirigintza zinegotziaren esanetan, *"jende askok 2 modelotarako eskakizuna aurkeztu du eta orain 15 eguneko epe bat zabalduko dugu heldu zaigun dokumentazio guztia aztertzeko"*.

Dokumentazio hori aztertu ondoren, onartuen zerrenda probisionala kaleratuko da eta erre-



AZSE enpresak eraiko ditu Toki-Ederreko etxebizitzak.

klamazioak aurkezteko epea zabalduko da, jarraian zerrenda definitiboa finkatu arte.

Zozketa

Ondoren, zozketa publikoa izango da; *"beste herri batzutan izan diren arazoak ez errepikatzen sistemarik egokiena dela uste dugu"*, dio Xabier

Gallastegik. Ziurrenik, urtarrila amaieran egingo da Novedadesen edota Zabalotegipeko aretoan eta beti ere notario aurrean.

Behin adjudikazioa egin ondoren, AZSE enpresak 30 hilabeteko epea izango du Toki-ederreko etxebizitzak eraikitzeko.

Udaletxeko obrak

Udaletxeko berriztatze obrak aurrera darraite. Berriztatze obrak egiten ari diren teknikoek arazo berri batzuk antzeman zituzten joan den asteen. Udaletxearen barruko hormak apurtu ondoren, harriduraz, hormak barrutik hutsik zeudela ikusi zuten teknikoek, teilatuaren euskarriak egoera penagarrian eta arkuak eusten dituzten zutabeen azpia hutsik edo egoera txarrean zeudela konprobatu ahal izan genuen. Arazo hauek badirudi ez dutela obra atzeratuko eta udal agintariek eman dute arazoaren berri Diputazioan.



Corpa
Bazarra

JOSE CORRIUS

Jostailu sorta bikaina!!

Barrenkale, 13 BERGARA

☎ 76 19 80

SANTOS IRRATI-TB
ELEKTRAGAILUAK - TB
BIDEOA - BIDEO KAMARAK - SOINUA

GABON GARAIAK OFERTA BIKAINAK PREZIORIK
INTERESGARRIENETAN

Mahasterreka, 2 ☎ 76 26 10 BERGARA

□ **Gurutze Gorria**
Deba Garaiko Gurutze Gorriak bazkideak lortzeko kanpaina bati ekin dio. Hortarako, etxe guztietara eskutitzak bidali ditu, elkartearekin kolaboratu nahi duten guztiei laguntza ekonomikoa eskatuz. Laguntza ofizialik ez du jasotzen Deba Garaiko Gurutze Gorriak eta gastuei aurre egiteko diru iturriak urre zozketa (% 85a), enpresa eta erakundeetatik jasotako laguntzak (% 11) eta bazkiddeen kuotak dira (% 4a).

□ **Bideoa**
JARDUNen Gazte Taldeak haurrentzako bideo berri bat iragarri du larunbaterako, hilak 12. Oraingo honetan, goizeko 11etan hasita, *Banptro ebiztariak* ikusteko aukera izango duzue. Sarrerak 25 pta. balio ko du.



Italiarrak bisitari

Astebukaera luze honetan Ortonovoko italiar espedizioa bisitari izan dugu Bergaran. Larunbat gauean iritsi ziren gure herrira Giovanni Tesconi *Avis Ortonovoko* presidentea, Carmello Pastelto *Prolocoko* ordezkaria, eta Luccio Beggi eta Luigi Corsanini artistak.

Uztailetik irailera bitartean Ortonovon ikusgai izan diren 29 margolari bergararren lanak ekartzeaz gain, Udaleko ordezkariekin bildu dira italiarrak, datorren urteko udazkenean gure herrian egingo duten erakusketa zehazteko.

Turismo pixkat ere egin dute Bergara eta inguruko herrietan. Argazkian, astelehen goizean Agerreko Garaixera eginiko bisitaldian, Victoriano Gallastegi alkatea eta Koldo Pereira eta Andoni Larrañaga zinegotzien laguntzaz. Agurtzeko, guztiek baba-jana izan zuten zenbait bergarar margolariekin batera Zuloa elkartean.

Aipatu, azkenik, *Bergarako Margolaritza Ortonovon* erakusketa abenduaren 18tik urtarriaren 6ra bitartean ikusgai izango dela Kultur Etxeko erakusgelan.

□ **Kontzertua**
Udazken Kulturalaren programazioarekin jarraituz, Musika Eskolako taldeek kontzertua eskeiniko dute ostiralean, hilak 11, arratsaldeko 7 t'erdietan Novedades aretoan. Tipleen Abesbatzak, Orfeo gazteak, haize Boskoteak, Jazz taldeak, Akordeoi Orkestak eta Orkesta Txikiak (Alberto Laskurainen zuzendaritzapean bere aurkezpena egingo duena), besteak beste, J. Busto, Strauss, Charlie Parker, G. Müller edota Weberen pizak eskeiniko dituzte.

□ **Komikia**
JARDUNek antolatutako komiki lehiaketarako lanak aurkezteko epea astelehenean, hilak 14, itxiko da. Lanak JARDUNek Errotalde Jauregian duen lokalean utzi ditzakezue.

ORTZI
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

MUJIK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

**Euskalduna
Taberna**

OSINTXU

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



Gabonetako programa

Dagoneko zehaztuta dago aurtengo Gabonetako programazioa. Udaleko Kultura Zerbitzuak hainbat ekitaldi iragarri ditu abenduaren 18tik urtarrilaren 5a bitartean.

Ezer destakatzekotan, abenduaren 19rako, larunbata, bertso-afaria iragarri da Ion Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elorzarekin. Egun berean, Gabonetako kontzertua izango da San Pedron 8etan eta arratsalde Euskadiko Igeri Txapelketa jokatu da igerilekuan. Hilaren 26an txakurrek eramandako trineoan helduko zaigu

Bizar Zuri; 28an 3. adinekoentzako kirol ihardunaldiak izango dira goizean Kiroldegian eta Everesteko diapositiba emanaldia 19.30etan. Abenduaren 29an, Mikel Markezzen kantaldia eta hilaren 28tik 31ra bitartean gaztetxoentzat haur-jolasak iragarri dira igerilekuan eta Kiroldegian.

Urtarrilera pasatuz, 2an Tanbela eta Ortziarekin jaialdia Mariaren Lagundian, Patxi kantaldia eskeiniko du 3an eta, amaitzeko, urtarrilaren 5ean Erregeen Kabalgata arratsaldeko 7etan herriko kaleetan zehar.

Txinpartak

✓ **Soldadutzarako** zerrendak osatzeko epea zabalik egongo da udal bulegoetan abenduaren 31ra arte. N.A.N.a, gaixoren bat alegatzeko mediku ziurtagiri ofiziala eta atzerapena eskatzeko eskolako ziurtagiria eraman beharko dira.

✓ **1.957. urtean** jaiotakoek beren anaiarteko eguna ospatuko dute larunbatean, hilak 12. Interesatuak Intxorta tabernan eman dezakete izena.

✓ **22 dendak** hartuko dute parte Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako II. Eskaparate Lehiaketan. Erabakia abenduaren 24ean jakinaraziko da.


✓ **Oilagorrak** dei egiten du larunbatean, hilak 12, arratsaldeko 5etan elkartean egingo den batzarrean parte hartzeko.

✓ **Kirol Argazki Lehiaketaren** sariak banatuko dira, larunbatean, hilak 12, Kultur Etxean 7etan.

✓ **Taun-Taunek Taun-Taun Show** bere azken lana eskeiniko du ostiralean, abenduak 11, Azpeitiako Zelaitxo antzokian 21.30etan.

✓ **Gazinemako** programazioaren barne, datorren ostiralean, hilak 18, J.F.K. filmea eskeiniko da gaueko 10etan Antzuolako aretoan.

ARREGUI, S.L.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

F
A
N
C
Y

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24


**INFERNUKUA
TABERNA**

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

Barrenkaleren aurpegi berria

Kolore argiak Parte Zaharreko itxuraldaketan

Aurrera doaz Barrenkaleko 19 etxebizitzetako fatxaden berrizketa lanak eta jadanik somatzen ari dira lehen emaitzak. Bat baino gehiago harrিতuta geratuko zen aukeratutako koloreekin baina Luis Ros eta Gregorio Leon arkitektoen esanetan, "egia da jendea kolore ilunetara ohitua dagoela, batez ere herrietako parte zaharretan. Baina orijinalki, Erdi Aroan, parte zaharretan kolore argiak izaten ziren nagusi eta guk berreskuratu egin nahi izan ditugu hasierako koloreak, aintzinarako argazkiak etab. ikusiz".



Luis Ros (ezkerraldean) eta Gregorio Leon arkitektoak Barrenkalen.

Beharrak zehaztu

Lanak hasi baino lehen Gregorio eta Luisek etxebizitzaren beharrei buruzko informe bat burutu zuten eta ondoren, bizilagunekin bildu ondoren, egin beharreko lanak zehaztu ziren behar horiek eta auzokideak ordaintzera prest zeudena kontutan izanik; aroztintza, dekorazio elementuak, baxuak, aleroak edota fatxadetako koloreak finkatu ziren. Zentzu horretan, diferentzia nabariak dira etxebizitzaren artean: bi-

txikeria bezala aipatzen da garestiena Mujikaneko etxea izan dela 5 milioi pta. inguruko aurrekontua izan duena. Hala ere, bi arkitektoek aitortzen duten bezala, ez da erreza izaten batzutan jabekideen elkartarekin ados jartzea koloreak aukeratzeko; "normala den bezala, kriterio ezberdinak izaten dira eta jabekideek beren eritzia ere ematen dute, azken finean beraiek ere ordaintzen dute lan hauen zati inportante bat. Dena den, jabeek gure kriterio

estilistiko eta artistikoa aholkatzen diegu".

Partizipazioa

Gogora dezagun apiril aldera amaituko diren lan hauek 21 milioi pta.ko aurrekontua dutela. Horietatik % 58a bizilagunek berek ordaintzen dute eta gainontzekoa Diputazioak. Herritarrengandik zein Diputazioarengandik jasotako erantzuna guztiz positiboa izan da Xabier Gallastegi Hiri-gintza zinegotziaren ustetan; "auzokideen parti-

zipazioa oso garrantzitsua izan da eta esan beharra dago aitzindariak garela Gipuzkoan honako lan bat burutzeko orduan. Honek, gainera, berebiziko garrantzia izango du honelako beste lan batzuei aurre egiteko orduan, jendeak erreferentzia bat izango baitu. Eta orainarteko emaitzekin oso pozik gaudela esan beharra daukat".

Anton Arbulu Arkitekture Diputatua datozen egunetan Bergarara etortzekoa da lanak nola doazen ikusteko.

ETXAGI

Jatetxea

Afariak - Bataioak

Jaunartzeak

Eguneko menua

Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

GOXO-PE ELKARTEA

15 urte bete ditu aurten

Goxo-Pe elkartearen sorreran ez dago inolako arrazoi berezirik. Lagun talde bat elkartu eta elkartea egitea pentsatu zuten. Honela, tokia topatu eta 1977.eko Maiatzaren 21ean ireki zituen azkenik bere atea elkar-te honek.

33 bazkide dira. Hauen batazbesteko adina 40 urtetakoa da. Denak dira gazteak Goxo-Pen, eta ez dago jubilatuturik. Elkarteko nagusienak 54 urte baino ez ditu.

Diru kontutan berriz, Goxo-Pe elkarteak, nahiko jan eta edan ondoren, urtean 2.300.000 pzta batzen ditu kuotak barne direlarik. Faltak berriz % 0,6 koak dira batazbeste.

Goxo-Pe elkarteak ez du gertakizun berezirik antolatzen, baina parte hartzen du herri mailan

gertatzen diren ospakizunetan.

Beraien eguna Maiatzaren 15ean ospatzen dute. Egun honetan bazkide guztiek afari bat egiten dute elkartearen.

Proiektuak

Beraiekin hizketan

izan ginenean proiektu edo asmo bat zuten eskuartean. Udaran izandako ur haundiek egingandako galerak ordaintzea hain zuzen. Elkarte honek, Lasai Toki elkartearekin batera, lau ur haundi jasan behar izan ditu. Hau da markia dutena!

Sukaldeko abilitadetan ibiltzen direnak ugari omen dira, baina hiru aipatu dizkigute: Julio Elkoro untxia gertatzen, Miguel Etxaniz arrainarekin eta Jose Ramon Azpeitia ehizarekin.

Anekdotak bezala hau kontatu digute: futbolzaleak ere ba omen dira Goxo-Pen. Afizio horrek eraginda, 82. urtean Errealak liga txapelketa irabazi zuenean, pozez gainezka zetorren mutikote galant bat eskaileretatik behera erori zen. Eta ez dira eskailera makalak!

Ainboa Lete



Maximo Alberdi (ezkerraldean) dugu Goxo-Peko presidentea.

FITXA TEKNIKOA

SORTU: 1.977.eko maiatzaren 21ean.

BAZKIDEAK: 33.

HELBIDEA: Matxiategi 36.

PRESIDENTEA: Maximo Alberdi.

ELKARTEAREN EGUNA: Maiatzak 15.

URTEKO KUOTA: 24.000 pzta.



KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

J
a
t
e
t
x
e
a

Jubilatuen Taberna

MENUA 750 pezeta

AFARIAK

Kuadrilantzako aproposak
Prezio onean

KAZUELATXOAK

= 76 62 71

ANTZUOLA

Tabernek baimendutakoa baino zarata gehiago ateratzen dutenean

Xabier Gallastegi

Hirigintza zinegotzia

"Aurten hiru salaketa izan ditugu"

- Zenbat taberna izan dira salatuak aurten?

- Aurten hiru salaketa izan ditugu eta beste taberna batek itxi beharra izan du ez bait ditu legeak ezarritako baldintzak betetzen.

- Nolako da salaketa baten tramitazioa?

- Denuntzia bat udal-etxera heltzen denean lehen pausua salaketa hori baieztatzea da, gero taberna eta salatzailarekin gelditu ondoren udal-etxeko teknikoek neurketa akustiko bat egiten dute, orduan legediak agintzen duena ez badute betetzen bi hilabete ematen zaizkie beraiek dituzten akatsak konpontzeko proiektua egiteko.

- Orduan salaketarik ez badago, zuek ez zarete zuen kabuz mugitzen?

- Hemen hiru arlo ezberdin egingo nituzke: lehen taberna berriena da hauei zabaldu baino lehen arauak bete dituzten ala ez ikusten dugu. Bigarren kasua martxan dauden tabernena da, legeak agintzen duenez traspaso bat dagoenean edo obra bat egin nahi badute, udaletxea Ekin-tzapide nekagarri eta osasunkaitzen espedientea zabaltzera behartuta dago. Espediente honetan gauza asko sartzen dira: higiena, segurtasuna, ea.. Kasu honetan daudenek taberna berriz zabaltzeko espediente agertzen diren betebeharrak bete beharko dituzte. Hirugarren kasua taberna normal batena da, hemen arriskua dago norbaitek denuntzia jartzeko edo bestela Udaletxeak, ofi-



Xabier Gallastegi, Hirigintza zinegotzia.

ziaz, denuntzia jartzea.

- Legeakustikoari buruz, ze eritzi daukazu?

- Teknikoki nahiko ondo dagoela uste dut, baina orain beste aktibitate berri batzua ari dira sortzen: Pub, Disco Pub ea.. eta noski lehengo legediak tabernei buruz hitzegiten zuen eta orduan gauza berri hauek ez daude garbi arautuak.

- Orainarte lokalaren baldintzei buruz hitzegin dugu, baina erabilpenari buruz ba-

dago zerbait..

- Bai, guk hirigintzatik gauza batzuk eskatzen ditugu: bi ate edukitzea, zarata 90 dezibeliotik gora ez izatea. Baina tabernariak gauza guzti hauek bete arren, adibidez atea zabalik izaten badute, musika topera jartzen badute edo jendea edatera kanpora irtetzen bada aurretik eskatutako neurri guztiak ez dute ezertarako balio. Hau hala izan ez dadin ere saiatzeko gara baina ez da batere erraza.



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80
76 06 37

ARREGI

Eraikuntza
materialeak

Biltegia Teilerlan, Tfnoa: 76 27 93
Labegaraita Auzoa

iRUDI

Erlojudenda
Bitxitegia

San Pedro 11
Tfnoa: 76 51 65

Fernando Etxabarri

Tabernaria


"Kalean gauzez ezin da zaratarik atera"

- Nola ikusten duzu tabernekin zaratei buruz duten legedia?

- Nik uste dut ondo dagoela, jendeak gauzez egiten dituen zaratak kontrolatu egin behar dira eta. Baina arazoak ere badaude, taberna zahar bat baldin badaukazu berrikuntza ugari egin behar dituzu eta horrek tabernariarentzat diru asko suposatzen du.

- Zuk taberna eraiki zenuenean ze baldintza bete behar izan zenituen?

- Ekintzapide kaltegarriari buruzko legearen baldintzak bete behar izan genituen. Lege honen arabera tabernak bi ate izan behar ditu, zaratek ez dute 30 dezibeliotatik pasa behar, nik tabernan 90 dezibeliotako zarata egiten badut, taberna goian dagoen etxean 60 dezibeliotako zarata izango da gehiena. Bergarako tabernen kasuan legedia gehienok



Fernando Etxabarri, Etxagiko tabernaria.

betetzen dugu, zaratak jendeak kalean egiten dituenak izaten dira.

- Orduan jendeak tabernaz kanpo egiten dituen zaratak nola konpon daitezke?

- Bueno hori kontrolatzea oso zaila da, jen-

deak tragoa hartzen du eta kanpora irtetzen da, kasu honetan guk ezer gutxi egin dezakegu. Hemen interesgarria izango litzateke jendea kontzientziaztea gauzez kalean kontu gehiagorekin ibiltzeko.

"Gau eta egun zaratak ditugu etxean"

Zaratak salatu dituen bat

M.M. taberna baten gainean bizi da eta behereko tabernak egiten dituen zarategatik udaletxean denuntzia bat jarri du.

- Zergatik jarri duzu denuntzia hori?

- Ba oso egoera txarrean bizi garelako. Gaua heltzen da eta goizeko 4retan musika topera jarrita dute eta gure etxetik dena entzuten da. Gauzez lotan gaudenean gure etxeko hormetan norbait

mailuka batekin dabilela dirudi. Gainera etxeko patioan bentiladorea dute eta eguerdian bazkaltzen gaudenean bentiladorearen zaratak asko molestatzen gaitu eta jasangaitza da.

- Ze irtenbide eman gozazke arazo honi?

- Ni ez naiz autoritatea, baina nire eskuetan egongo balitz taberna hori itxi egingo nuke. Etxeko patioan baimena eman genien gauza batzuk jartzeko eta beraiek

baimendutako baino gauza gehiago jarri dimate.

- Ze egoeratan aurkitzen zara?

- Ni oso erreta nago, gauzez ezin dugu lorik egin eta egunez bentiladorearen zaratekin ezin dezakegu gure etxean lasai egon. Nik ulertzen dut beraiek nonbaitetik atera behar dutela dirua, baina guk gure etxean lasai bizitzeko eskubidea ere badaukagu.



LIZAR
Altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

LAZKANO

OINETAKOAK

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

Foto Sistema

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteletako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50



ETXE- -AUNDI

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta
eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84



BERGARA Tfnoa: 76 25 99

SURPE Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

Gustatzen zaizu nola geratzen ari den Barrenkale?



Jon Suinaga
25 urte, langabetua

Ondo dago etxeak berriztearena. Alde Zaharra aprobetxatu beharra dago eta gustatzen zait, orijinala da.



Maria Luisa Bengoa
48 urte, etxeoandrea

Oso ondo dago eta Zabalenero etxea oso ondo geratu da. Lan polita egiten ari dira.



Maria Jose Etxeberria
27 urte, erizaina

Kolore berri honek politak dira. Eguraldia bastante iluna da eta paisajia bizia izatea ondo dago.



Bixente Eguren
67 urte, jubilatua

Bastante egoki dago. Komeni zen holako zerbait egitea eta berriztea beti dago ondo.

LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:
RAMON IRAEGUI



ORDEZKARIA
BERGARAN

Ramon M. Lili 6
Tfnoa: 76 23 30
Faxa: 76 41 54
20.570 BERGARA



VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -
ISPILUAK-KRISTAL
BISELATUZKO
ATEAK - etab.
Azal eiguazu zure ideia
VID-ARTEk
egingo dizu.

BELANBIDE, Z/G · 20.570 BERGARA
Tfnoa: 76 23 30 / 76 41 54



Benetako nazionalismoa

Joan zen astean, Gipuzkoako Mendi Nekazaritzaren Elkarteek antolatuta, berrogeiko talde bat, Hegoaldeko Tiroleko nekazaritza ezagutzen izan ginen. Bolzano herrialde automo hau bere borondatearen aurka izan zen sartua Italia barruan, eta oso barrenetik bizi dute nazionalismoa, nekazal munduan ere ikus dezakeguna.


Baserri produkzioa mantentzea eta baserri eta lurralde izkutu eta aldapatsuenak ere okupatuta eta bizirik mantentzea da euren lehen helburua.

Euren defentsa ere produktuen kalitatean datza, eta hori lortzeko, nekazaritza biologikoa eta produkzio integratua, hau da, sustantzia kimiko sintetikoaren erabilera eta industriarekiko menpekotasuna gutxitzeko, honen erregulazio eta promoziorako legeak atereak dauzkate, kalitate kontrol eta propagandarako sistema egoki batez.

Horrezaz gain, baserriak hain txikiak izanik oso politika sendoa daukate lurrak zatitu gabe mantentzeko (bai herentzia partiketetan etxean gelditzen denari diru-laguntza bat eskeiniz beste anai-arrebei emateko), bai nekazal lurretan etxebizitzak egitea bakarrik nekazari direnei utziz; aldez, baserri barruak konpondu eta bertan bi familia bizitzeko laguntzak emanez. Baso politika babeslea ere aipatzekoa da.

Guzti honek, herri eta sektore baten alde urrats seguruak ematen ari direla esan nahi du, beraz hemen ere bukatu da anbiguitatean ibiltzeko ordua, eta bada garaia, gure politikoez ere puntu horiek zein beste batzutan eredu hori hartzeko.

Maite Aristegi



Udazken euskalzalea

Hamar urte igaro dira Euskararen Normalizazio legea indarrean sartu zela eta iritzi triunfalista samarrak entzun dira instituzioetako erakundeen aldetik. Instituzioetako sektore gutxi batzuk ere lana gogor egin dute euskararen alde baina beste batzuek, gehienek, oztopoa eta errezeloa besterik ez dute aportatu. Gure egoeraren muestrarik onena udazken honetako programa:

Ikastolen egunen ondoren UDALERRI EUSKALDUNEN eguna ospatu zen Aulestian. Herri txiki euskaldunen elkarte da aintzindari udal administrazioa euskalduntze prozesuan, nahiz eta goitik trabak gehiago izaten dituzten laguntza eta animoa baina.

AEK eguna egin zen gero Lezon. HABE sortu zenean erakunde honek AEK suntsitzeko ahalegin guztiak egin zituen. Ahaztea hobe. Baina hamar urte geroago ere helduen euskalduntzeari zuzentzen zaizkion diruak gutxi dira eta AEK, IKA eta beste zenbait euskaltegiako langileak baldintza mixerabletan egiten dute lan.

ARGIA eguna izan dugu berriki. Astekari euskaldun bakarrak talde euskalzale porrokatu baten militantziari esker irau du bizirik, erakundeen laguntza oso urriaz, eta gaur egun ere hala jarraitzen du.

Eta egun hauetan EGUNKARIAren bigarren urteurrena. Baina honek aipamen berezia merezi du, honenak marka guztiak hautsi baititu.

Juan Martin Elexpuru

**I
Z
O
Z
K
I
A
K**

**i
Z
E
R
H
O
T
Z**

**I
Z
O
Z
K
I
A
K**

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22



Barrenkale 31

Gaspar

**Jatetxea, Txokolategia,
Self Service-a**

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Mujika Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

AGOITZ Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58

BERGARA

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

LARRAÑAGA eta ZUBIA

Banatzailleak

Errioxako ardoak, olioak, esnea, lejiak...


Martokua 32, tfnoa: 764594

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA



PAPERDENDA

Marcó

Bidekurutzeta 44
Tel: 943 76 05 54
Fax: 943 76 05 54
20570 BERGARA



Oilagorrako afaria.

Oilagorra eta Pertxaren urteurrenak

Joan den larunbatean Oilagorra eta Pertxa elkarteek beren urteurrenak ospatu zituzten. Batetik, Oilagorrek, bere 25. urteurrena ospatu zuen arratsaldean jokaturako Plater Tiro lehiaketa (Jesus Mari Iburgurenek irabazi eta Jose Maria Mujikak eta Asier Igarzak ere sari bana jaso zuten beteranotan eta gaztetan) eta gauean elkartearen egindako afariarekin, bertan 72 lagun bildu zirela.

Bederatzi urte beranduagoko egun berean (abendua 8) sortu zen Pertxa eta 60 bazkidek ere afaria egin zuten larunbat gauean beren XVI. urteurrena ospatzeko. Asteazken zehar ere zenbait ekitaldi izan dira Pertxan (bazkideen emakumeek, esaterako, beren afaritxoa izan zuten astelehen gauean) eta bi elkarteek zoriontzea baino ez zaigu falta.



Pertxakoek ere larunbata aukeratu zuten beren urteurrena ospatzeko.

SURF
Kisak Moda

AISSOR

Quick Silver, Rip Curl, Town Country, LIBERTO,
O' NILL, TACHEE

Bidekurutzeta 7 ☎ 76 04 10 BERGARA



□ **Arraunlari bat Bergaran**


Itxaro Zabala 27 urteko gimnasia irakasle eskoriatzarra **Luis Fernandez**en baja betetzera etorri da Aranzadi Ikastolara. Itxaro arraunlaria dugu eta Bartzelonako Olinpiadetan parte hartzeko zorian egon zen. Ia urtebeteko kontzentrazioa Galizian egin ondoren, Olinpiadak hasteko hilabete eskas bat falta zenean ezetza eman zieten bera eta bere tripulazioa osatzen zuten lagunei (zazpi eta timonela). Disgustu galanta hartu omen zuten eta Atlantako Olinpiadetan suerte hobea opa nahi diogu Itxarori. Akaso, bien bitartean, arraunerako zaletasuna ere piztuko du bere ikasleen artean...leuuuup!!!

□ **Urrezko eztaiak**

50 urte pasa dira bai **Luisa Gantxegi** eta **Pablo Ibarra** ezkondu zirenetik. 1.942.eko azaroaren 27an izan zen ezkontza Urkiolako Santutegian, eta pasa den azaroaren 29an senitartekoekin ospatu zituzten urrezko eztaiak, Urkiolan meza entzun ondoren Lasa Jatetxean egindako bazkariarekin. Han izan ziren, besteak beste, izan dituzten 3 alabak eta 7 bilobak eta guztiek primeran pasa zuten elkarrekin. Zorionak Luisa eta Pablori eta segi horrela!!


Zertan dihardute ba?

TAUN-TAUN



Tolosako Txotxongilo Jaialdian lortutako arrakastaren ondoren, talde bergararrak Alvaiddako (Valentzia) Txotxongilo Jaialdian parte hartuko du astebukarea honetan *Taun-Taun Show* lanarekin..

JON MUNIATEGI



Donostiako Fakultatean Arkitektura ikasketak burutzen ari den 23 urteko gazte bergarar honek igerilekuetara itzultzeko erabaki hartu du, kasu honetan waterpolo taldea indartzeko asmoz.



IZADI
Santiveri PILI GISASOLA
 Osasun eta Dietetikan
 espezializatutako zentrua
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

YAZKI
UME **GAZTE**
Neska eta Mutil
 Irizar 3 Ibargaral 8
 Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

BOLINTXO
Kirola egiteko behar den gurtia
 Ibargaral 10,
 Tfnoa: 76 38 32

Umore giroan

Beti kontrakua

Ba ei zan Plaentxian andra bat, -bere gizonak esaten zebanez- beti kontrakua egin biar izaten zebana. Gizona bera be etzan santu-santua. Asarre askotxo zeguan andragizon aren artian. Andriak beñ baiño geixagotan esaten zetsan bere burua botako ebala erre kara gauzak orrela jarraitzen bazeban. Baiñan, alperrik! gauzak etziran obetotuzten. Eta egun baten, esan eta egiñ, andriak ainbeste bidar esan zetsana egiñ-eiñ zeban: diskusioño bizi baten, salto erre kara.

- Ene, gure andriak eiñ jok eitxekua! esanaz, jatsi zan altaira eta erreka erztetik bazoian Osintxuruntz.

Orretan, tope egin dau ezagun batekin eta esplikatu detsa andriak egin

daben "disparatia".

Eta lagunak:

- I, baiña, gaizki oia. Ire andria korrientiak Maltzarutz eruango jok...

- Ai txotxo! ik ez zeban nere andria ezagutzen! Arek beti kontrakua eitxen juan, eta oiñ be, seguru nagok, kontrakua eitxearren, Maltzarutz juan biarrian Osintxuruntz joango dala!

* * *

Agin postizorik bez!

Gaba baten, alkartu da Patxiko bere lagun batekin:

- Ondo abill Patxiko?
- Primeran. Ementxe nagok diru guztia gastatu arte.
- Larregi eztok?
- Ez. mutil. Nik ez juat pentsatzen gerorako agifi postizorik be lagatzerik.

Pedro Zelaia

Antzinako kontuak

Animen erretaula

Erretaula nagusia egiten ari zen urte beretsuetan Sta. Marinako Animen Kofradiak izen horren pean erretaula bat burutzea erabaki zuen; uzkuntza anonimo bat zeukaten horretarako, baina baldintza bat aurretik jarria, alegia, bigarren erretaulan Sta. Teresaren imajinak agertu behar zuela. Kofradia 1.741.eko urtaririlaren 12an bildurik, eta aipatu erretaula eraiki ahal izateko, bertako partaideek erremusin gehiago eskaintzea (diruz, gariz, intxaurrondo, eta abarrez) deliberatu zuten; azkenik, Miguel de Irazusta izan zen obra bere gain hartu zuena 6.000 errealeko prezio merkea onartuz kofradiari erremusina egitearren. 1.743rako, Irazusta hil zenerako alegia, obra amaituta zegoen.

Orohar hartuta, erretaula xinglea da, batez ere erretula nagusiarekin konparatuz gero. Gorpu bakarra erakusten du predela eta atikoaz gain. Erdiko zatia, Animak errepresentatuz, apaindutako pilastra pare bat eta orden konposatutako eta fuste ildaskatuak dituzten zutabeak hartzen ditu alboetan, guztiak

erretaula nagusiaren-antzeko apaingarriak erakutsiz; euskarria predelatik nabarmenezten diren lau mentsula korapilatutan aurkitzen du. Atikoan nitxo bat azaltzen da Sta. Teresaren imajina barruan duela, kiribilduraz errematuriko frontoi hautsi batek korroatua; maila honetan lerro kurbatuak eta apaindura joria nagusitzen dira.

Sta. Teresaren imajina ere Luis Salvador Carmonari zordio, bere obrarik nagusienetakotzat hartzen delarik. Baditu zenbait alderdi azpimarratu beharrekoak: edertasun formala, batetik, aurpegi-er fineko begitartean agerian gelditzen dena tentsio izpirital bizia erakutsiz, eta konposizio orijinala eta dinamismoa bestetik. Santa estatikoren irudi tradizionalaren aldean, hau mugimenduan agertzen da, idatzi ahala aurrera eginez, eta honek erabateko berrikuntza ikonografikoa dakar.

Mari Jose Aranburu
Jesus Gil Massa



LASA JATETXEA

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29

ARTAZI

% 20 eta 40ko
deskontuak

Consuelo Ibarra Gantxegi

Katabia, 1 BERGARA
☎ 76 27 17

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

ARDATZA

Brikolaketa

ATEAK
eta
HORMA
ARMAIRUAK

Mahasterreka 4
☎ 76 18 93

BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar



Ane Miren Iturriaga

Ane Miren Iturriagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria. Orain bi asteko argazkian agertzen zen baserria **Arane Erdiko** dugu eta 10.000 pzta.ko saria eskuratu du Ane Mirenek. ZORIONAK berari eta ea besteok suerte gehiago duzuen aste honetako BONOFOTOAn!!

Zein da parke honen izena eta izendatuko zenituzke bertan dauden bost zuhaitz ezberdin?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Aste honetako
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen:

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

EURO DISNEYra DOHAN!!

San Pedro kaleko dendarien elkarteak bi pertsonarentzako EURO DISNEYRA BIDAIA edota 100.000 pzta.tako txekoa oparituko du Gabon hauetan aldamenean aipatzen ditugun dendetan erosketak egiten dituztenen artean.

BILTOKI
BATZOKIA
MOZOS FARMAZIA
ORRASKI ILEAPAINDEGIA
GUISASOLA BURDINAKI DENDA
SIASKA
GARNISH
ZAPATODOS
RETEGUI ZAPATADENDA
JUSTI ARRAINDEGIA
MARGA MODAK
LETURIA HARATEGIA
RADIO BERGARA
IZARRA ILEAPAINDEGIA
EROSLE MAZORRIAGA
OGIZUN OKINDEGIA
GALLASTEGI JOSTUNDEGIA
LARRAÑAGA GOXOTEGIA
SAN PEDRO FRUTA DENDA
BIONA PENTSUAK

GABON HAUETAN ZURE EROSKETAK SAN PEDRO KALEAN, HURRUNAGO JOAN BARIKI!!

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA, ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

GUZTI HAU
ARRASATEN
BERTAN,
URRUTIRAGO
JOAN GABE!!



Zerkaosketa, 17 etxabea.
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

Boleibol txapelketa Kiroldegian urtarrileko lehen egunetan

□ Beisbola

Deba Garaiko Kirol Zerbitzuak aurre beisbol monitorea izateko ikastaro bat antolatu du. Ikastaroa 14 urtetik gorakoentzat izango da eta bi egun iraungo du. Abenduaren 19an hasi eta 20an bukatuko da. Oñatiko Zubikoa kiroldegian izango da eta 2.000 pta. balio du Kirol Zerbitzuko bazkideentzat eta 2.500 gainontzekoentzat.

□ Futbola

Bergara K.E.ko 2. mailako errejional taldeak 1 eta 4 irabazi zuen asteartean Donostian eta sailkapeneko lehen postuan dago. Preferenteko taldeak, berriz, 3 eta 1 galdu zuen Pasajesen aurka larunbatean.

Udal Kirol Zerbitzuak datorren urtarrilaren 2tik 5erako boleibol txapelketa antolatu du. Txapelketa Labegarrietako kiroldegian jokatu da, bertan 14 urtetik gorako neska-mutiek hartu ahal izango dute parte. Boleibol txapelketan jokatu nahi dutenek Kirol Zerbitzuko bulegoan abenduaren 24a baino lehen eman beharko dute izena; talde bakoitzak 500 pza ordaindu beharko ditu. Udal Kirol Zerbitzuak iragartzen dituen sariak kontutan hartzekoak dira: txapeldunentzat trofeoa eta afaria, bigarrenentzat trofeoa eta sariak eta hirugarrenentzat trofeoa.

Araukak

Boleibol txapelketa-



Boleboilak gero eta jarraitzaile gehiago ditu.

ren antolatzaileek arau batzu ere finkatu dituzte: talde bakoitzak gutxienez sei jokalarik edukiko ditu eta 10 gehienez, honez gain partiduak 5 set iraungo ditu. Txapelketako arauak jarraituz, sareak 2,24 metroko altuera izango du eta jokalarien errotazioa erregulatu arautzen duen

moduan egin beharko da. Bestalde talde bakoitzak partidua jokatzeko orduan gutxienez 4 jokalarik baino gehiago izan beharko ditu eta hau hala ez bada partidua galdutzat emango zaio. Txapelketa liga edo kopa sistemaz jokatu den a-puntatuko jendearen araberaz zehaztuko da.

Xake mate!!

Bergarako xakezaleek Oilgorra taberna izan dute topagune azken bi aste hauetan. Guztira 24 xakelari aritu dira beraien trebetasunak azaldu nahian eta normala denez trebeena Martin Arriaran izan da.

Martinek 23 partidatik 22 irabazi ditu eta argi erakutsi du bera dela Bergarako xakelaririk onena.

Bigarren postuan 19 punturekin Ibon

Elkoroberezibar sailkatu da eta hirugarrena 16 punturekin Goio Juldain izan da. Beraz txapelketa honek argi uzten du tabernetan edateaz gain, beste ekintza batzuk egin daitezkeela.



JAUJA KIROLAK
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**T
G A N B A R A
B
E
R
N
A**

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

Jabier LAZPIUR
HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA



1.968.eko kintoak

Ez dakit objezio, intsumisio eta abarrekin gai hau nola dabilen gaur egun baina gutxi izango dira argazkiak ateratzeko kinto bazkari eta afariek baino aitzakia haundiagoa ematen duten etorkizunak.

Ondoren datozenok ere horixe egin zuten:

Lehen ilaran: Jabier Iñarra, Migel Angel Irizar, Manolo Lopez, Jesus Mari Lete, Agirrezabal (Maki), Ramon Villar, Iñaki Elguero eta Jabier Areitio.

Bigarren ilaran: Abasolo, Jabier Olañeta, Jabier Zabaleta, Karmelo, Joakin Ostolaza, Guillermo Navarro, ezezaguna eta Angel Aranguren.

Hirugarren ilaran: Jesus Ignazio Andueza, Jose Antonio Pagaldai, Juan Jose Bikuña, Jose Mari Lete, Jesus Mari Iñarra, Felipe Aranzabal, Felipe, Jose Mari Agirrebeña, Felix Mujika, Juan Luis Iñarra, Angel Gallastegi.

Laugarren ilaran: Inazio Etxaniz, Zabala (Antzuola), Jose Luis Aranzabal, Santos Okina, Migel Angel Igarza, Arturo Garitano, Jose Mari Beitia eta Luis Albistegi.

Bosgarren ilaran: Juanito Mayora, Martin Murua, Jose Luis Gantxegi, Migel Bengoa, Jose Inazio Azkarate-Askasua.

Estepan Plazaola
Argazkia: Txaro Oteo



jolas



**GABON HAUETAN...
ZURE OPARI DENDA**

BARRENKALE 27

ETXEBIZITZA

- Ganbarak hustu eta garbitzen ditugu. ☎ 76 82 17.
- Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6. Can. ☎ 76 62 49.
- Bergaran herriaren erdialdean ileapaindegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.
- Harrizurin garajea salgai. ☎ 74 30 55/ 74 43 19
- Pisua salgai Bidekuru-tzetan. (5.000.000). ☎ 76 09 36.
- Artekalen pisua salgai ☎ 76 55 63. Gauzez.
- Garajea salgai Santa Marinan. ☎ 76 32 70.
- Garajea salgai Martokuan. Erosoa. ☎ 76 46 95.
- Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian. ☎ 12 12 71.
- Espaloian garajea salgai ☎ 76 23 27.

- Pisua salgai Artzamendin mueblekin edo mueble gabe. ☎ 76 40 82 (6etatik aurrera).
- Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu. ☎ 76 14 13 (gauzez)
- Garaje bikoitza alokairuan Burdiñaten. ☎ 76 57 69/76 13 23.
- Taberna alokatuko nuke. ☎ 76 53 73.
- SALDU-EROSI**
- Kanowey moto bat salgai (49.9 zm3). Egoera onean (90.000 pta.). ☎ 76 12 99.
- Citroen AX Image SS-AG matrikuladuna salgai. ☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).
- Collie txakurkumea salgai. Bi hilabete. ☎ 76 64 83 (Xabier).
- Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 76 44 34 (Amaia)

- Sega Megadrive bi joku salgai. 8.000 pta. ☎ 76 25 12 (Andres).
- Eskiko Koflach-Valuga botak erosiko nituzke. ☎ 76 05 92 (Jose Angel).
- Ileapaindegi eta estetika aparailuak salgai. Egoera onean. ☎ 76 32 12.
- Bateria klaseak ematen dira. ☎ 76 54 74 (Aitor).
- OPEL CORSA SS-S gorria salgai. Prezio onean. ☎ 76 55 80.
- Petrolioizko estufa salgai. ☎ 76 50 05.
- Peavy 100 watts bi anpli salgai. Biak 100.000 pezetatan (bat 60.000). ☎ 76 10 34.
- Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.
- Lau MSX joku salgai. ☎ 76 59 47 (David).
- Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W. ☎ (945) 27 92 73 (arratsaldean) / 76 05 23 (gauzez).

- Paslatzeko bizikleta ia berria salgai. ☎ 76 45 64.
- Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke. ☎ 76 31 76.

LANA

- Etxeko lanak egin edota denda baten lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.
- Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. ☎ 76 45 53.
- Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).
- Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 07 26 (Amaia).
- Edozein motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).
- Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke. ☎ 76 60 65.

Hildakoak

Felicitas Imaz Martínez de Ibarreta
abenduak 6, 94 urte

Jaiotakoak

Beñat Abio Abreu
abenduak 1
Aritz Arrillaga Egiluz
abenduak 4
Ainara Amorós Becerra
abenduak 6

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara
ANGIOZAR ☎ 76 55 70



Merzeria - Lenzeria
D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Txuringo



Jatetxea

AFARIRAKO IZENA EMATEKO DEITU
TELEFONO HONETARA ☎ 76 48 63

GABON ZAHAR EGUNEKO AFARIA ETA KOTILOIA

MENUA:

- Urdaiazpikoa
- Marisko-koktela tuterako kukulutzuekin
- Hojaldretxo beteak
- Marisko krema
- Legatza labean erreta
- Txerrikumea
- Postrea: turroia, mazapana, etab.
- Etxeko ardoa
- Txanpana
- Kafea, kopa eta puroa
- Musika, afaria alaitzeko

URTE BERRIAREN ETORRERA OSPATZEKO
KOTILOIA, MAHATSA ETA TXANPANAREKIN.

PREZIOA: 7.000 pzta.

ORDUA: Gaueko 9ak.

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR

SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA